

## **AMBK (Área Metropolitana de Barcelona) Irizar i2e probatuko du metropoli eremuan**

*Ormaiztegin, 2015eko martxoaren 3an*

**Irizar i2e, Irizar Taldearen autobus % 100 elektrikoa, Baix Llobregat eta l'Hospitalet-eko hainbat lineatan probatuko da hiriko ibilbideetan zerbitzua emateko egokia dela egiaztatzeko.**

Antoni Povedak, Bartzelonako Metropoli Eremuko Garraio eta Mugikortasun lehendakariordeak (AMB), Sant Joan Despín aurkeztu du gaur Irizarren autobus % 100 elektrikoa. Autobus hori metropoli eremuko hainbat lineatan ibiliko da datozen asteetan. Baixbus enpresa da (l'Hospitalet, Baix Llobregat eta gaueko autobusetako lineak dituen) autobus elektriko berriarekin hainbat lineatan zerbitzua emango duena -hasieran, L46, L52 eta L96- eta helburua izango da AMB sareko hiriko eta hiri inguruko ibilbideetan zerbitzua emateko egokia dela egiaztatzea.

AMBK mota honetako ibilgailuekin metropoli eremuan egingo duen lehen proba da hau, eta etorkizunean ezartzea da asmoa.

AMBK mugikortasun arazoak dituztenentzat egokitutako beste 6 ibilgailurekin batera aurkeztu du ibilgailu hau, flota berritzen ari baitira. Gainera, erabiltzailearentzako informazio sistema berria ere aurkeztu du; hiriko zenbait geralekutan ezartzen hasi dira eta hurrengo autobusa etortzeko falta den denboraren berri ematen du.

Aurkezpenean nabarmendu diren arloak honako hauek dira:

### **Irizar i2e autobus % 100 elektrikoa**

Irizar i2e taldearen teknologia propioarekin garatutako zero igorpendun lehen hiri autobus integrala da. Gaur egun estatuko bi hiritan ari dira probatzen: Donostian (2014ko uztailetik) eta Bartzelonan (abuztuaren 18tik). Irizar i2e 200 eta 250 km arteko autonomia eskaintzeko diseinatu da, egunaren amaieran karga bakar bat eginez. Kargatzen bost ordu emanda, gidaritzatza 14-16 orduz bermatuta dago.

Zoru baxuko hiriko autobusa da, 12m luze eta 2,55 m zabal. Guztira 24 eserleku ditu eta 70 pertsona garraiatzeko gaitasuna. Bi gurgildun aukirentzat tokia ere badu.

Beraz, AMB autobusa testatzen ari diren gainerako konpainiei gehitu zaie: (Dbus) Donostia, (TMB) Bartzelona, (EMT) Madril, y (RTM) Marseilla.



Eragiketa-datuak gaur arte:

### **Dbusi Donostian entregatutako lehen ibilgailua**

Uztailaren 23tik zerbitzua ematen Donostian

- 12 metroko linea guztietan dabil
- Egindako kilometroak: 7000 km baino gehiago
- Egunean ibiltzen den orduak: 14h eta 16h artean

### **TMBri Bartzelona hirian entregatutako ibilgailuak**

Abzutuaren 18tik zerbitzua ematen Bartzelona hirian

- 20. Linean dabil
- Egindako kilometroak: 9000 km baino gehiago
- Egunean ibiltzen den orduak: 14h eta 16h artean

### **Madrileko EMT- 2014ko azaroa**

2014ko azaroa

Operadorearen definizio eta material mugikorreko dibisioko buru den Ángel Cedenilla jaunaren ondorioen arabera

"Irizar i2e linea normal batean jarriko balitz martxan 180 km egin ahal izango lituzke kargatu beharrik gabe, hau da, 14 h inguruko autonomia. Beraz, baldintza horiekin autobus elektriko hau Madrilgo sareko 80 edo 90 lineatan ibili ahalko litzateke".

### **Marseillako RTM**

Bi hilabeteko proba - 2014ko abendua eta 2015eko urtarrila

- 83. Linean dabil
- Egindako kilometroak: 4000km
- Egunean ibiltzen den orduak: 12h eta 16h artea

Informazio gehiagorako  
Ana Eceiza  
Mail: aeceiza@irizar.com  
Tel.: + 34 667181833